

FOTOGRAMAZ FOTOGRAMA

Mudo Drogot izenpean dugu aspaldidanik zinezaleek osatutako taldea. Eta izena aldatu ez bada ere, bertatik pasatu direnak asko dira.

Zine Klubaren historian zehar prozesu ezberdinak izan dira. Azkenekoak 92. urtera garamatza. Urte honetan jende gutxi zegoe-la eta, pelikula bat botatzearekin batera, jendea talde honetako partaide izatera animatu zuten. Ordutik hona, dozena bat pertsonak osatzen dute Mudo Drogot.

Orokorrean, talde honen filosofia zirkuitu komertzialetatik kanpo dauden filmeak ezagutaraztea da, horretarako zine jaialdi ezberdinetan aurkezten diren pelikula interesgarriak erreferentziatzat hartuz. Bildu eta eskainiko diren filmeen aukeraketa egiten dute, beti ere kriterio zabalak izanik, jende guztiaren gustu zinematografikoak asetu nahian.

Urte gutzirako egitaraua planifikatzen da horrela. Aurten "Ladybird, Ladybird", "Tan lejos, tan cerca" eta "Vivir" izango dira besteak beste ikusi



Zine Klubaren karteletako bat.

RAUL BOGAJO

ahal izango ditugun filmeak. Guztira zazpi izango dira, guztiak hil bakoitzaren bigarren ostegunean. Zinemazale hauen esanetan, osteguna ez da oso egun aproposa, nahiago lukete ostirala balitz, jende

gehiago hurbilduko litzatekeelako, baina Udalak, kultura astebukaeretara bakarrik mugatu ez dadin aragudiatuz, eguna ezinbesteko baldintzatzat jarri du.

Bestalde, bideoak ere erabiltzen dituzte, filmeak

oso garestiak omen direnez, Zinemara ekarri ezin daitekeena gutxienez bideoz ikusi ahal izateko bate-tik, eta bideotekatxo bat muntatu nahian bestetik, Udaletik jasotako aurrekontuaren zati bat bideo zintak erosteko erabiliz. Horrela, telebistan eta goizalde gehienetan ematen dituzten hainbat pelikula grabatzen dituzte, gero zikloka bota ahal izateko. Bideoak Torreta Etxean pasatzen dira, eta gazteen-tzako lokala denez, heldua den jendea agertu ere ez da egiten, lokala bera arazo bilakatuz.

Etorkizunari begira, asmoak eta ilusioak egon badaude; horietako bat zinema ikastaroak eskaintzea da. Orain dela urte batzuk zentzu honetan esperientziaren bat egin zen. Laburmetraia bat ere egin zen, eta honelako iniziatibak berreskuratu nahiko litzukete zinefilo hauek. Eta errodiatara bisitaldiak egiteko aukera izatea, eta zine jakitunak ekartzeko aukera edukitzea, eta, eta, eta zerrenda luze bat.

Bea Narbaiza

QUETZAL

Opari denda

Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62



UGARO

AHOLKULARITZA FISKAL ETA JURIDIKOA

Zubiaurre, 27. 177 Apdoa.
ERMUA



Mutua General de Seguros

Seguru eta Reaseguruen Elkarte Mutua
1907 urtean sortua

Tfnoa: (943) 17 43 44
Faxa: (943) 17 54 58